

Trini Bidasoro Blasco

*Zumaia,
Gipuzkoa
(1920-2008)*

Aurkibidea

Biografia



Zumaiako San Telmo kalean jaio zen eta bertan bizi izan zen bizi guztian. Aita zumaiarra zuen, ama donostiarra. Bere aitonak, Trino Bidasorok, itsasoko ura erabiliz bainuetxea jarri zuen Zumaiako hondartzan. Hiru belaunaldiz izan zuen Bidasoro familiak ("Triñotarrak") bainuetxea Itzurungo hondartzan. Itsasoko ura hartu, berotu eta erreuma sendatzeko bainuak ematen zituzten.

Zintak

ZUM-021

- **Proiektua:** Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2008-01-30
- **Iraupena:** 25 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Gaztetatik lan asko egin behar jan ahal izateko

- **Erref:** ZUM-021/004
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:08:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>17 urtera arte eskolan ibili zen. Orduan gerra etorri zen eta gosea pasa zuten. Baserrietara joaten ziren janari bila. Basusta inguruan terreno bat zuten eta bertatik ateratzen zuten janari pixka bat. Lanean ere hasi zen antxoa fabrikari: antxoei buruak kendu eta kaxetan gatzetan jartzen zituzten. Ortizeneko fabrikari jardun zuen lanean. Zarautzen ere jardun zuen lanean pertxak egiten. Oinez joaten zen Getariara eta oinez itzuli. Trena ordaintzeko ez zuten dirurik.</p>

2. "Triñoneko" bainu beroak itsasoko ur beroarekin (I)

- **Erref:** ZUM-021/006
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Triniren familiak bainu beroak jarri zituen Itzurungo hondartzan ("Triñonekuak"). Itsasoko ura berotu eta 6 kabina zituzten bainuak emateko. Bonbarekin jasotzen zuten ura itsasotik euren etxetxora. "Ooldidxa" (algak) ere gehitzen zen, nahi bazen. "Ooldixa" eurek jasotzen zuten harraldean.

Transkripzioa

- Eta zuek izan zenduen, hor, playan, Itzurunen...
- Nere gurasuen zaharrak. Nere guraso zaharrak zeken baiño beruak, itsasoko urekin, berotuta, reumentzako.
- Eta nola zan hori? Oaingo talasoterapia itxurakuak?

- Hori, hori, hori, hor ez dakit zer daon! Ez det ezagutzen, ta!

- Baiña zuena horrelakua, ez?

- Neria, guria zan, geo nerena etorri zan, nere zeara etorri zan... Guria zan, ba, itxe bat. Genduzkan sei, sei zea, sei gela baiñera haundidxakin. Eta kaldera haundi bat zekan gure aitta difuntuak, linternera zan ta. Eta han berotzen zan ura ta geo graduatu, eta ematen zian baiñuak. Ta etortzen zian, baita, baita, Madritikan'e etortzen zian...

- Bai, e?

- ... baiñu beruak hartzea, Zestuara.

- Karo!

- Zestuako urak hartu, ta hemengo baiñuak hartu, eta aprobetxatuaz.

- Eta itsasoko ura...

- Itsasoko ura, itsasoko ura! Ta itsasoko ura biltzen zun gure aittak, hondarrian zekan deposito bat einda. Ta hara, deposito hara etortzen zan ura. Eta geo gendukan bonba bat, honela. Hari eragin behar izaten giñon asko eskukakin!

- Eskuzkua zan?

- Eskuzkua. Ta harekin barruko zeara, depositoeta.

- Berotu...

- Berotu, graduatu baiñeretan, eta baiño eder bat. Ta nahi zituenak ooldidxakin, algak erderaz.

- Ooldixak, bai, e? Ooldixakin, e

- Egosi ooldidxa, haren ur beltzakin bota zeai, baiñerai, eta ona zan.

- Eta hori reumantzako, eta?

- Reumentzako.

- Eta ooldixa ta, nundik? Zuek jasotakua?

- Haitzetik.

- Haitzeik jasota?

- Haitzetik geuk jasota. Geuk jasotzen gendun, egosi ta botelletan sarzen giñuzen ur haidxek, eta baiñu berua eman behar zanian o eskatzen zuenian, hura botatzen gendun ta gehidxo kobratzen gendun.

- Eta hori nun zeon?

- Hor, itsasuan!

- Itsasuan bertan? Oaiñ komunak eta daben tokian, kantina onduan?

- Ba, hortxe, hortxe. Ezautzen dezu...?

3. "Triñoneko" bainu beroak itsasoko ur beroarekin (II)

- **Erref:** ZUM-021/008
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Bere aittaittak jarri zuen negozioa, Trino Bidasorok, eta ondoren aita jarraitu zuen, Joakin Bidasorok. Garai batean ospe handia izan zuen; jende asko etortzen zen. Azpeitia inguruko jendea eta baita kanpotarrak ere, Zestoako balneariora etortzen zirenak. Udan bakarrik izaten zen.

Transkripzioa

- Noiz jarri zuen zure gurasuak?
- Hura?

- Bai.

- Jaungoikuak daki! Nik ezautu nun...

- Zuk txikitatik? Ume-umetatik?

- Nik, nik, han ezautu nun, han, nere aitta. Ta aittaitta're bai.

- Aittaitta're bai?

- Aittaitta're.

- Orduan, ez da, aittak jarritakua ez da?

- Ez. Aittaittak, aittaittak.

- Aittaittak jarritakua. Nola zun izena aittaittak?

- Aittaittak? Nola zun izena? Nere aittak Joakin Bidasoro. Trino Bidasoro.

- Trino Bidasoro. Eta berak jarritakua zan, orduan, baiñuak?

- Bai. Bai.

- Eta nolatan jarri zun hori? Nola okurritu zitzaion?

- Honbre! Hori nola okurritu, nik nola jakingo det, ba, hori, ba, hark buruan hori jartzia?

- Baiña esan dezu jende asko etortzen zala?

- Asko. Guk baiño asko ematen gendun.

- Eta gehixenbat zer zan, kanpoko jendia? Turistak? O, bertako jendia're bai?

- Azkoitikuak ta Azpeitikuak ta Zestuakuak eta hemen eon hituan... Honea jende asko etortzen zan! Oiñ ez dakit nola daon...

- Oain'e bai, baiña...

- Gehidxo ez det nahi sartu hondartzan ta...

- Eta kanpotik'e bai? Madrid...

- Baita, bai, bai, bai, bai. Madrideko jendia etortzen zan, ba, jeneralian, ba, itxiak hartuta edo, pisuak hartuta edo. Ta geo, bitartez, aprobetxatu iten zuen.

- Eta baiñuen hau zer zan, tenporadako, udarako...?

- Udako bakarrik.

- Udakua. Bai.

- Noiz hasten zuen?

- Hiru hillabete.

- Hiru hillabete.

- Hiru hillabete.

- San Pedro...

- Bai. Udaan hasitzen giñan, ta geo, ba ya, udazkeneako kito. Setienbrian hasierako, kito.

- Eta esan dezu, sei gela ta sei bañera?

- Sei bañera, bai. Baiñera haundidaxak, e! Ta haidxek garbitu in behar zian!

- Bai.

4. Bainu beroen negozioa eta lanak

- **Erref:** ZUM-021/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Negozioaren lana izaten zen: urez bete, ondoren graduatu, eta bainua eman. Bainatu ondoren izerdi patsetan egoten ziren bertan bezeroak. Ondoren, bainera hustu eta garbitu. Umetan hasi zen gurasoei laguntzen. Trinik itsasoan

ibili nahi izaten zuen, lagunekin hondartzan, baina lan egitea egokitzen zitzaion.

Transkripzioa

- Eta esan dezu, sei gela ta sei bañera?
- Sei bañera, bai. Baiñera haundidaxak, e! Ta haidxek garbitu in behar zian!
- Bai. Ze iten zan, bete, baiñatu ta geori hustu? O nola iten zan?
- Lelengo bete iten nuan, e, bete. Graduatu, ta graduatzen zanian, zenbat zeetan? Batzuek treinta y seis, treinta y siete, ocho o nueve, hortikan aurea, ez gendun gehidxo ematen. Eta geo, baiñatzen zianian, jantzi ta izerdi patsian, han [...] ibili zian. Geo hustu, garbitu ta listo beste batentzako. Sei baiñera zian.
- Eta jendia nola baiñatzen zan? Trajebaiñuakin, o?
- Bate gabe.
- Bate gabe.
- Bate gabe. Han sikatu ederki iten zian, ta geo, jantzitzen zianian, ba, kalea. Pagatu... Batzuek pagatzen zuen ta beste batzuk ez zuen pagatzen.
- Ez, e? Eta zenbat pagatzen zan? Gogoratzen dezu?
- Hutsa, hutsa. Zenbat pagatzen gitun? Duro bat? Duro bat orduan [zillarrezkoik] bazan.
- Bai. Duro bat izango zan ya bukaeran, ez?
- Bukaeran. Zillarrezkua.
- Bai, bai. Eta umetan'e aita ta amari ta laguntzen ibiliko ziñan?
- A ber! Ibili beharko! Ene! Igesika beti! Beti igesika! Beti igesika, baiño... Nik ere lagunakin nahi izaten nuan ibili itsasuan...
- Bai, ba!
- ... ta ba al dakizu? Lana in behar zan han!
- Udaran gaiñea! Lagunak hondartzan ta zu lanian!
- Ni lanian. Ez dao.
- Eta ze lan eiten zendun umetan eta? Txikitan?
- Txikitan, txikitan igesi. Garbitu hura, garbitasuna.
- Garbitzia.
- Garbitasuna. Bai, garbitasuna. Ikusten zuen jendia zeola, ta garbitasuna.

5. Itsasoko urari algen ura gehitzen zioten

- **Erref:** ZUM-021/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:18:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Bainuetan ooldidxa ere botatzen zuten, harraldean hartutako algak. Medikuek batek esan zion algak ere onuragarriak zirela osasunerako. Itsasoak ekartzen zituen harraldera eta eskuz biltzen zituzten. Ondoren, egosi, eta algen ura botatzen zen bainuetan. Ur beltz-beltza izaten zen, oso osasungarria.

Transkripzioa

- Eta ooldiya o esan dezuna...
- Ooldidxa.
- ...nundik ateatzen zan?

- Haitzetik.
 - Baiña nola, nola jasotzen zan? Sariekin o?
 - Ez, ez, ez, ez, ez!
 - Eskuz, o?
 - Ez, ez, ez! Hara, gure aittak hori zea bat hartzen zuen, bere... ohitura zuna! Mediko batek esan zion urtiakin, "Joakin, está usted trabajando al revés". "¿Por qué?" gure aittak, eta "Porque en la peña he visto yo unas algas que son maravillosas". Ekarri giñuzen, ta hala da, hala zan. Eta, esaten dizut ba, hemen Hotel Amaia zan, Hotel Amaia beteta eoten zan. Ta jende asko juten zan. Hala hasi giña ooldi haidxekin, eta primeran. Gaur´e billatuko nuzke nik haura asko!
 - Eta nola hartzen zun, ooldiya ta, nola ta noiz hartzen zun?
 - Itsasuan haitzak ekartzen zun. Iten zitzakon, belarra iten zakon bezela, eta orduan, ra! ebaki eta otarrea, ra! ebaki eta otarrea. Ta geo, itxea etorri o gora jun, egosi eta haren hura beltzakin zeai, zeai eman, baiñu beruai eman.
 - Bel-beltza ura?
 - Bel-beltza. Hura gorputzai ematen zitzakon.
 - Eta ooldiya zer zan, beti klase bakarra, o? Edozeiñek balio du, o?
 - Ez, ez, ez! Danak ez due balidxo! Espresamente ooldidxa, gaur´e billatuko nuzke nik! Baiña nik, "nanai de la China"!

6. "Triñoneko" bainu beroak itsasoko ur beroarekin III

- **Erref:** ZUM-021/011
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Triniren aittittak (Trino Bidasorok) hasi zuen negozioa, gero bere gurasoak eta ondoren Trinik eta bere senarrak. Hondartza ingurua ez da asko aldatu. Kantina oraingo tokian zegoen, Triniren familiaren bainuak ezkerretara eta baineruak beste aldean (toldoak jartzen zituztenak). Triniren familiari "Triñonekuak" esaten zitzaaien. Erreumantzako onak ziren bainuak.</p>

Transkripzioa

- Eta esan dezu hasi zala orduan, e, zuen aittitta, Trino.
 - Bai.
 - Eta gero zuen gurasuak.
 - Bai. Gero nere aitta. Eta geo, nere gurasuak jun zianian, ni gelditu nitzan.
 - Eta noiz hori, gutxi gorabehera? Noiz hasi ziñan zu ya...
 - ¿Cuántos años hace que dejamos la playa?
 - (Gizona) Ya no me acuerdo, muchos. Yo no me acuerdo, muchos.
 - Veinte sí. Veinte años.
 - (Gizona) Hace muchos. Ya ni me acuerdo.
 - Hori utzi? Laga ya?
 - Laga.
 - Eta hartu? Zure gurasuak utzi ta zuk hartu?
 - Auskalo! Ez naiz akordatzen!
 - Gaztetan?
 - Gaztia nitzan orduan ta!

- Eta beste, familiako beste batzuk, izeba, osaba...
- Ez, ez, ez, ez, ez! Geu bakarrik giñan, bai. Zan, hondartza zan... Zekan, udaletxiak zekan kantina. Ta uandikan kantina haura hor dao. Hor daola pentsatzen det, e?
- Bai, bai, bai.
- Eta giñan, beste baiñero bat, tolduak eta zeak jartzen zituna, este, bankuak eta jartzen zituna behian, hondartzan. Eta guk'e jartzen giñuzen. Eta geo gu, hiru, hiru, hiru familia[laxe] giñan, hor lana iten genduan.
- Zeintzuk ziran? Tolduak eta, zeintzuk? Ze familia zan tolduakin zebillena?
- Hara, [izen ez dakit. Esango dizut] ezizena. Xakolekuak.
- [...].
- Xaku, Xaku. Asike, gu, Triñonekuak eta bestiak, ez dakit, ez naiz akordatzten.
- Zuek, Triñonekuak.
- Gu, Triñonekuak.
- Zuen baiñuen horrek izenik bazun?
- Ez. Baiño beruak.
- Baiño beruak. Triñoneko baiño beruak.
- Bai.
- Eta zertarako zan ona? Baiñu beruak eta zertarako zian onak?
- Reumentzako.
- Reumantzako.

7. Gazte bi salbatu zituen itsasoan

- **Erref:** ZUM-021/012
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Triniren aitak sokak jartzen zituen hondartzan, itsaso bazterrean, igerian ez zekitenak itsasoan sartu ahal izateko, sokari helduta. Hala ere, batzuetan jendea larri ibiltzen zen itsasoan. Trinik bi gazte atera zituen itsasotik: Oliteko reketek bat (gerran), eta Zumaiaiko gazte bat.</p>

Transkripzioa

- Baiño hor... Hor nik... Bi mutil ateata nao, geo, itsasotik, e!
- Bai? Itotzen?
- Igeridxan ondo nakin nik! Ondo! Geo, nere aittak jartzen zuan batetik bestea bi ez daka zeakin, este, nola da...
- Soka batekin, o?
- Sokakin! Igeridxan ez zekidxenai heldu eta baiñua hartzeko.
- A! Baiña estaka bat lehorrian eta beste estaka bat itsasuan.
- Bai, itsasuan. Beste bi itsasuan. Beno, ba, egun batian, holaxen, itsasertzian neon ta gizaseme bat apuruan, apuruan. Ta ikusi nunian, laga danak, patrikan nezkan txanpon danak galdu nitun, eta atea nun. Ba al dakizu zer zian?
- Zer?
- Reketiak Zumaidxan sartu zianeko eguna! E! Reketiak o...
- Bai.
- ...sartu zian eguna. Bat oso gaztia. Ta ikusi nunian jun nitzan saltaka ta atea nun. Orduan sasoia nekan nik! Atea nun ta kitto. Hura Olitekua zan.

Eta gehidxo ez det ezer´e jakin. Behin jun giñan, zea, saldatzea, ta ez zion inportantzik bate eman ta kitto, ez dakit gehidxo. Baiño beste bat zumaiarra. Jose Uribe, ez dakit aituko zendun behin ere?

- Ez.

- Hemen bertako semia. Jun bai ederki, itsasuan, ura behera dijuala, ederki igeridzan. Baiño geo etortzeakuan zailla. Ikusi nun ta jun nitzan saltaka, jun nitzan presaka. Itsasua, lehen esan deten bezela, sokai heldua ta. Atea nun uretatikan. Gaur oaindikan ikusten naun bakoitzian besarkada bat eman gabe ez da geatzen!

- Zuk salbatu zendulako.

- Bai. Bestela ittoko zan.

- Jende asko itto al da hor, o?

- Itto, itto, ba, ba...

- Sustua bai, ez?

- Sustuak eman, haundidxak. Itto´re, itto´re bai.

- Ze da, hondartza, itsasua txarra?

- Itsasuak jan ta segituan junda edo, ez dakit nola! Ez dakit, baiño...

8. Antzinako bainujantziak

- **Erref:** ZUM-021/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Triniren gazte denboran herritar gehienak jantzita ibiltzen ziren hondartzan, galtzak eta soinekoekin, edo bestela bainujantzi luze-luzeekin. Zumaiaiko "txaperoak" (aguazilak) zaintzen zuen hondartza.

Transkripzioa

- Hondartzan eta, gaztia ziñanian, e, gerra aurretik eta, trajebaiñuak eta nolakuak zian?

- Nolakuak zian? Soiñekuak!

- Soiñekuak?

- Orduan ez zan oain bezelako tiritita hoidxek eta, zea hoidxek eta ez zian orduan! Ordun al zan mouan!

- Baiña zer zian, trajabaiñuak zian? O bestela, etxeko soiñeko batekin eta...

- Baita. Ez zekanak etxeko soiñekuakin. Eta zekanak, trajebaiñuakin. Ahal zan mouan.

- Herriko jentia eta normalian...

- Bai, [...].

- Herriko gaztiak eta, mutillak eta?

- Mutillak galtzakin.

- Galtza-motzak?

- Galtza-motzakin.

- Eta noiz azaldu zian bikinixak eta?

- Hoidxek? Hoidxek noiz azaldu zian? Urte asko!

- Hori azaldu zanian eta, ez? Eskandalua izango zan.

- Eskandalua izango ez zan, ba! "Hori al da [paraderua]!", "Hori, hori, hori, [...] in didxo hori [habek]?" eta. Jendia berriketan. Baiño segi, segi jendia.

- Eta izaten zan bijilatzen, txaperua ta bijilatzen eta ibiltzen zan, edo?
- Bai. Jartzen zuen, baiña ez zuen ezer iten.
- Ez, e?
- Haidxek ez zuen ezer iten. Jartzen zuen txaperua, baiño, konparazidxo batea, ba, ba, zikiña baldin bazeon o bronka bat baldin bazeon, eo, holakotxe, holakotxe zeitan. Bestela ez, bestela...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com